GURE OLEŔKARIAK

# AŔESE TA BEITIA'TAŔ FELIPE

*Aŕese'ren bizitza*

Aŕese ta Beitia'taŕ Felipe, gero oleŕkari ospetsua izango zana, Otzandio'n, Bizkai'ko uri garai-otzean, untzegiñen eŕian, yaio zan 1.841'gaŕeneko Oŕila'ko 26'gn, oraindik Bizkaya'k bere Batzaŕak Geŕnika'ko areizpean egiten ebazan aldian. Bere gurasoak Aŕese'taŕ Andeŕ, Otzandio'koa, ta Beitia'taŕ Tomase, Marin deitxon Leintza-ibaŕeko eŕi koskoŕekoa izan ziran. Lau anai izan ebazan. Bera yaio zan etxea Aŕtekale'n 26 zenbakiduna da. Zazpi bat uŕte ebazala bere gurasoak gure Felipe eŕiko ikastolara bidali eben lenengo eleŕtiak ikasten; ikastolatik oŕ amalau bat uŕte eukazanean aterata, uŕte bi-baŕu-edo Araba'ko uri nagosi Gasteiz deritxorena bidali eben an langintza edo ogibidea ikasten. Gasteiz'en olarotz edo *santugin* baten menbean yaŕi zan eta ugazabak eguneko alogeŕtzat iru eŕeal emoten eutsozan, eta iru eŕlokaz biziten zan gure Felipe. Eguna ugazabaren lantegian igarota gabaz Maŕezti-ikastolara eŕduten zan, maŕeztuten *(dibujo* egiten) ikasteko asmoz. Ikastola onetara beŕogeta bederatzi gautan baño eŕduezaŕen, sendo ta asko auŕeratu zan, lenengo saria irabazi izan ebanda; garaitza onek baña bere ikas-lagunen ikusi-eziña ta amoŕua

erakaři eutsozan, garaitza ořegaitik auřean ařtuta etxeraño ařika eroan-da. Ařiketa iguingaři onetan ari batzuk burura eldu ta zulo andi bi egin eutsoezan Felipe'ri; Felipe'k baña biotz on-biguna eukan-da, naigabe ori eroan ebanařen Gasteiz'eri beti eskeř ona ta benetako maitasuna izan eutsozan bizi izan zanařtean *Bitoria'ko Uria* bere oleřki politean azaltzen daunez:

..................................................

..................................................

Nik bere zuri zoř deutsut dodan ofizioa,
Ikasi neutsun biziteko lain irabazten,
¡O! ¡zenbat eskeř zoř deutsudazan gañera, santu
Irudi asko deustazulako eragiten!

..................................................

Ni ilda bere biziko al zara zorionakaz,
Zeřen maitatzen zaitudan beti biotzetik.

Gazteiz'tik 18 uřtegaz biuřtu zan bere yaloteřira ta lantegia iminita beretzako lanean asi zan Otzandio'ko San Mařtoi-auzoan Gasteiz'en ikasi eban langintza edo ogibidean. Bere lantegian batezbe ondi edo *altarak* eta irudiak (zurezkoak eta ařizkoak) egiten ebazan, irudien ařtean bařiz geien-geien Gurutzatuak, eta eřirik-eři ibilten zan bere lanak saltzen eta yařten: ozta-ozta auřkituko da Eusko-eři osoan Ařese'k bere lořatzik itxi eztaun eřirik edo onditan, edo oltzatan edo Deun-iruditan. Beste askoren ařtean berea da Oñati'ko Lateran'dař lekaidien elexako Josu'ren Biotza'ren ondia. Bere gizaldian guda asko ta zoritxařekoak izan ebazan Eusko-eřiak, eurak bide izan zirala Jaungoikoa'k egin ebanetiko azkatasuna osoro galdu eban-da, eta gure Felipe be kařlatařen bigařen gudatean izan zan, baña «Zořnotza'ko Itunbena» ezeban onetsi.

Ezkontzeko arora eldu zanean bere emaztetzat Bengoa'tař Gotzone neska lirañа ta biotz on-onekoa, Otzandio'ko alabea ařtu eban: ezkontzea Aramaio'ko Azkoaga auzoan egin zan. Gotzone'gaz ezkonduta San Mařtoi auzoan yaři zan, lantegitik uřean, eta senař-emazteok sei seme-alaba izan ebezan, baña Gařbiñe ta Luki bi ez beste guztiak gazterik eta euren auřetik il yakezan; Miren Piłare alabatxoa zazpi uřte bete barik, 1.888'gn. uřtean il yaken gurasoen biotza oñazez beterik itxita, bere oroikařiz *Aguř, ume* izenagaz aitak idatzi eban oleřki edeřetik agiri danez. Senař-

emazteok bene-benetan kistaŕ-sendia egiten eben: euron etxea ume zuŕtz eŕukaŕien etxea zan Gotzone euren ama biozpera ta eŕukioŕa, ezautu eben orok diñoenez, eta Aŕese'k berak be abestu ebanez Gotzone'ren eriotz-ostean *Anjela* deritxon oleŕki edeŕa baño edeŕagoan:

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

¿Non da arako karidadedun andŕa andia,
Gazte pobŕe ta biĺox tŕisteak yantziteko?
¿Zelan itxi dauz gauŕ emen bere zatiak deslai,
Len besterenak izaten zanak jasoteko?
¡O! ¡Zenbat umezuŕtzek beragan euken ama bat!
Orain bereak auŕkitutean ama baga,

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Uskuŕtzale andia ta eŕukioŕa zan: egunoro mesea entzun eta Andera Miren'en aguŕtzea sendiaz otoi egiten eban, igandeetan ostera auzo osoagaz; eskatu eutson txirori ukaŕa ez eutson egundo ukatu; txadonean bederatziuŕenak eta kuruzpideak berak egin eroiazan. Etxe-zalea zan, eta txadonean ezean, lantegian edo etxean auŕkituko zan. Ituŕtzaeta Otzandio'ko txaunburu izan zanagaz adizkide-adizkide izan izan. Udatean goxeko bostetan yagoten zan, eta lenen-lenen Andera Miren'i aguŕ egiten eutson. 1.894'gn. uŕtean, ezkonduta 22'gnan eta Aŕese'ren 53'gnan il zan Gotzone, Aŕese'ren Anjela kutuna, bere senaŕaren biotzean iñoz osatuko etzan zauria eriotz oŕen oñazeak edegita. Bere naigabea norañokoa zan bere oleŕkirik onenetarikoan, *Anjela* deritxonean, biziro azaltzen dau. Luze-samaŕa ezpa'litz oso-osorik yaŕiko neuke emen; boaz oŕaitio atal batzuk:

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

¡O amodio benetakoa! ¡Ze desbaŕdiñak,
Direan zure ain egitada zuŕgaŕiak!
Len poztu eta, orain tŕistetu egiten nozu.
¿Zelan al dozuz nigan kontŕako gauza biak?

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

¿Non da beraren aŕpegi edeŕ eŕanutsua?
¿Non da ak niri egiten eustan abegia?
¿Non aren txera, ongi-etoŕi ta ago gozoa,
Eztia baño yausten etxakon ituŕia?
¿Non da gureko egazti zuri ego-zabala,
Txitatxo biak euren baŕuan goŕdetako?

¿Non ama samuř, eta apatza bere aingeru,
Biak altzoan beso-ařtean estutzeko?

.......................................

Jauna ¿enintzan neure Anjelaz betiko batu?
Jauna, ¿eneutsan beretzat emon nik biotza?
Jauna, ¿beragaz bat-bat nitzan ta batera iIik,
Zelan ez dogu bařdin guk igo Zuganuntza?

.......................................

Gotzone il yakonean, oraindik bere semea ta alabea txikitxoak ziran-da, euroi amořdeko bat zuzentzeko, uřte gitxi bařu bigařenez ezkondu zan Ituřieta'tař Gabirele Otzandio'ko alabeagaz. Al eban ařtean beretzako ta bere sendiarentzako lain berak bere lanaz irabazi izan eban, zařtzarorantza baña, biotzeko gatxa ageřtu yakolako, lan andirik ezin egiñean yaři zan-da eusko-abeřtzale aberats-talde batek egunorokoa emoten eutson, eta au zala-ta zařtzaro ona igaro eban soñez eta gogoz. Berak asmau eban zaldi-*eřadurak* egiteko *makiñea*.

### *Ařese oleřkaria*

Gure Felipe'k oleřki-zaletasuna gazte-gaztetatik ageřtu eban, baña ořaitio lenengoz oleřkiak 24 uřte ebazala ařgitaratu ebazan kařlatař gudeatzaz. Biotz sutsua, ona, maitatia ta abeřtzalea eukan, eta ořegaitik bere oleřkigairik beñena bere abeřia izan zan, abeřiaren eta beronen ele euskerearen zoritxařak, baita biotzazko itxaropen eta ames gozoak be. Eusko-azkatasunak luř-yota eta euskerea eřdereak auřean eta baztařtuaz eroiala ikusteak bere biotz abeřkoia miñez eřdibiturik isten eban, eta ikuskizun latz-negařgaři ořek deadařik zořotzenak eragin eutsozan abeřtzale andiari. Bere biotza iñori gořotorik izateko onegia zan-da, bere oleřkiai maitasuna darie, ta bere negařak be maitasunak eragiñak dira. Beti baña negařez eta diadařez be ezin bizi gizonaren biotzata, nozipein gauza bařegařiak eta ipuñak be abestu ebazan euren «mica salis» edo gatzagaz, biotza atsedeteko. Gure uřetxindořaren abesti zoliak 38 uřterařteño bere yaioteřitxoan bakařik entzuten ziran untze-oletako gabi-otsen ařtean; ořdurařteño Otzandio'ko txoritegiko zotz-ganean bakařik idigiten eban bere uřezko mokoa Jaungoikoa'ri ta Abeřia'ri abestuteko; 1.879'gn. uřtean baña, beren 38'gnan, Napařoa'rañoko egazkadea egin eban, Elizondo'ko urixka polit-lirañeraño, an areitz uřtetsuaren gaIuřean abots zoliaz *Ama*

*Euskeriari azken Agurak* itunik abestuteko. Egun zoriontsu oretan gure uretxindorak txoritegiko esiak betiko uratu ebazan, azkatasunaz zaletu zan, eta egun oretatik aitzin or dakuskegu uririk-uri Eusko-eri osoa zear bere abesti zoli-sutsuakaz euzkotarak euren lozorotik iratzartu ta euron biotzak Aberia ta euskeraganako berotzen, eta eltzen dan toki gustietan berea da garaitzea. Nire ordez itz begie Elizondo'k, Iruña'k, Durango'k, Bilbao'k, Gernika'k, Aramayo'k eta beste uri ta urixka askok diñodan au egiztetako; eurok esango dauskue amalau aldiz baño geiagotan sariztau ebela gure Arese bere olerkiakaitik. Bein Iruña'n Kanpion yaunagaz autuan egoala, napar yakintsu arek Arese'ri:—«¿Zelan eta nondik atera dozu olerki oren edera?»—itandu eutson, eta Arese'k:—«Biotzetik urten daust, yauna»—erantzun eutson. Eta izan be, Arese'k ezeban izan astirik eta erarik ikaskizunetan luzaro ta sakon eragoteko, ta augaitik bere yakituri berezkoa ez ganetikoa andia ezin izan zeitekean, baña oraitio be irakurteko zaletasun bizia eukan-da, bere burua argitzeko al ebana irakurten eban, baña bere irakurgairik beñena Idazti Deuna izan zan, berbe-rak Iza'tar Ander ta beste askori be autortu eutsenez, idazti deun oregaz beren uskurtzaletasuna ase-bete ta bere irudimen ibilkora aberastuaz. Au dala-ta bere olerkiak nozipein Dabita'ren eresiak dirudie; adibidez *Nere eriko ujola* deitxona, eta Belduaren *Nolumus expoliari sed superindui* polito adirazten dau gure Arese'k itz-neurtu oneitan.

....................................

....................................

¡Ai! banengoke antxen ondo bizitzeko
Baña, beldurez nago beti ni iltzeko,
Eta *il egin bear* ara igotzeko,
Uso nai nuke izan *bizik egazteko*.

Eritara izanik eriagaz bat eginda bizi izan zan, eta bere olerkietan eriaren yakituria, eriaren oitura-ekanduak, eriaren poz-naigabeak eurez agertzen dira; bere abestietako irudiak: ola, ituri, ibai, erekatxu, mendi, muna, uso, bei, beor, auntz, ardi, areitz eta abar, guzti-guztiak dira Eusko-eritik artuak. «Gogo zindoa gorputz zindoan» da Eromataren esakuna, eta gure olerkaria gorputzez gizon ondo egiña izan zan; lerden-sendo-zabala, ez garaiegia, ez koskoregia, azalez urdiña, begirakunez apatza ta zura, abots-

edo arantza ederekoa: soin zindoa gogo zindoarentzako. Arese olerkari betea, osoa, izan zan, edozeñen aurean ez lotsatuteko añakoa; Arese'ri olerkiak iturriari ura legetxe berez-berez erion, eta bere irudimenak irudi egokiak emoten eutsozan adimenari. Bere auretiko olerkarien neurriai estu ta gitxi eretxita, bere abestietan neurri barriak be ebali ebazan, eta bere olerkietan iru izkindun neurtitzetik 16 dunerañokoak aurkitzen dira. Olerkirik geien 1.880 gn. urtetik aurera idatzi eban, eta, 1.900'gn. urtean ordurartean idatziak erri-txindiz, idazti baten batuta, argitaratu ziran.

Idazti oreri: «Felipe Arese ta Beitia'k egiñiko *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria*» deritxo, ta Bilbao'n, Asturi'tar Jose'ren irarkolan irari zan. Idazti au, «Jaungoikua eta Lagi-Zara»-ren aldezko alderdiari eskeintzen dautso, ta urengo, «Liburu oneri» deritxon olerkitxoan idaztiak zer dakaren diñosku; gero Kanpion jaunaren Auritz edera (erderaz): «Felipe de Arese y la poesía popular bascongada». Onen yarai 125 Arese'ren, olerki, bost españeratik euskeraratuak eta enparauak berenak. Olerkiok, euren gaiaren arauz, sei zatitan dagoz bananduta, eta lenengoari *Kantu errikoiak* deritxo, ta bertan Aberia ta euskereatzaz daragoio abestuten. Bigarenari *Goratasunezko kantuak* deritxo, ta berton eusko-seme goragarri-gurenak eta beren ama, alaba ta emazte maiteak izan ziranak goratzen daragoio. Irugarenak *Ipuñak* daroa izentzat, eta berau da atalik ugariena, ta olerkariak irudi egokien bidez ipuin oneitan ikaskizun ederak emoten dauz. Laugaren atalak *Irakurgaiak* dau izena, eta nik *Oldozkaiak* imini izango neuntson, izena eskatu izan ba'leuste, eta au ezean *Naskaldia*, gai askori daraikio-ta. Boskaren atalari *Kantu erderatik euskerara biurtuak* deritxo, ta bost abesti onek atzean dauz: «Ekatxa», «Lepanto'ko garaipena», «Guzman Ona'ri», «Bernardoa» ta «Bernardo eta Eroldanen arteko yazara»; bostok euskerara ederto itzulita. Seigaren eta atzenengo atalari: *Beste kantu errikoi batzuk* deritxo, ta iru olerki artzen dauz: «Aspe eta Perez», «Zugatzak» eta «Azkena». Euskereaganako aize otzak putz egiten daben egun oneitan, eletorke txarto «Aspe ta Perez» izendun olerkia irakurtzia.

«Zugatzat» deritxonean, zugatzen onurak goratuta, Gernika'ko aretxera egaz dagi, gure uretxindorak an dauko bere abia-ta. Azkena» deritxona amaseikoa da, ta bertan euskotar guztiei

euskera ta azkatasunen aldez baŕiro be dei egiten dautse bere mokoa itxitoŕduko. Azkenez idazti oŕek eusko-oleŕtiztiaz zeŕtzelada batzuk dakaz eŕderaz: *Ensayo de Arte métrica euskara* izenaz, eta itz gitxi ezaun batzuen ikuŕak eŕderaz. 1.900'tik 1.906'ra idatzi ebazan oleŕkiak oŕ dabiltz aldizkingietan zabalik, oraindik iñok pil̃atu barik.

Itz gitxitan: Aŕese oleŕkari ugari ta garaia ageŕtzen yaku; berari oso-osoan dagoko arako *poietes* (egil̃ea) izena; tamalez bere oleŕkietan, oŕduko aizeai jaŕaituta, *zein*, *zeintzuk*, *noŕ*, *noŕtzuk* geiegi darabiltz, eŕderaz *relativo* deritxon ori adiŕazteko, baita eŕdal-itz geiegitxo be; baña au egia izanaŕen beste iñok baño alegin geiago egin eban euskerearen gaŕbitasuna yagoten.

Len be esan dodanez, Aŕese'k gogo ta soin zaŕtzaro ona igaro eban, eta biotzeko gatxak egun bi baŕuan eroan eban il-obira, eta ikuŕton deunak aŕtuta Yaungoikoa'ren bake santuan Otzandio'n beŕtan il zan 1.906 gn. uŕteko Uŕtaŕil̃a'ko 16'gnan, eta Otzandio'ko iltegian datza. Otzandio'ko eŕiak beti euki izan dau Aŕese bere pitxi ta edeŕgaŕitzat, eta beraganako maitasuna ta eskeŕ ona erakusteko eŕiko zeiari oleŕkariaren izena ezaŕi eutson idazkun aonegaz: «Aŕese ta Beitia'taŕ Pil̃ipa'ren Zeia» Oraintsu baña, noŕbaitzuk, euskerazko idazkun ori kenduta, eŕderazkoa imini izan dabe, oŕegaz euskeltzale sentsu areri aŕpegira txistua jauŕtinda.

LAŔAKOETXEA'TAŔ BEDITA JON

Oñati.



# EUSKAL ESNALEA

1926

IRAĨLA

273'g zenbakia